

*Gida didaktikoa*

**HAN ETA HEMENGO  
IPUINAK II**

**BI DANBORRARIAK**

# BI DANBORRARIAK

## Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

**Bibliografia** 15.or.

**Egileak** 16.or.

## **HELBURUAK:**

Ordena kronologikoari jarraituz, fikziozko narrazioa zein errealitatean oinarritutakoa egitea, lekuzko eta denborazko konektoreak baliatuz eta aditz-denbora egoki erabiliz. Eskolako eguneroko bizitzako egoeretan parte hartzea, ahozko hizkuntza erabiliz. Gaitasun metalinguistikoa garatzea.

## **EDUKIAK:**

### **Jarrerak:**

Begirunea.  
Zuzentasuna.  
Ordena.

## **PROZEDURAK:**

- A. AHOZKO TESTUAK ULERTZEA eta EKOIZTEA:
  - a. Narrazioa: ipuin fantastikoa.
  - b. Argudioa: gelako eztabaidak / planifikazioa.
  - c. Hitz-jolasak: hizki-salda.
- B. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK ULERTZEA
  - a. Azalpenezko testu historiko egokitua.
- C. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEA:
  - a. Narrazioa: ipuin fantastikoa.
  - b. Elkarrizketa: laguntza egokiro eskatzea.
  - c. Deskripzioa: pertsonaien deskripzioa.

## **KONTZEPTUAK:**

Narrazioari buruzkoak  
Denbora une ezberdinak  
Kausa eta ondorioa  
Deskripzioari buruzkoak  
Pertsonaia  
Koherentzia

## JARDUERAK:

### ULERTZEKO ETA EKOIZTEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

·Ikusi baino lehen, eman izenburua, erakutsi karatula eta bermatu hipotesiak egiten dituztela.

#### A. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK ULERTZEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

·Ikusi eta entzun ipuin osoa. Ikasleek erantzun diezaietela pertsonaiak zein diren, nolakoak diren, zer arazo zuten, nola konpondu den, zer egin zezaketen... galderei.

#### B. AHOZKO ETA IDATZIZKO TESTUAK EKOIZTEKO PROZEDUREKIN ERLAZIONATUTA DAUDENAK.

·Egin ipuinaren sekuentzia, ahoz eta marrazkiz, antzerki-saioa prestatzeko: banatu pertsonaiak, egin dekoratuak, ahalegindu sortzen diren eztabaidak eta desadostasunak hitz eginez konpontzen:

·Elkarrizketa: egin Lamiak Lainoarekin izan duen elkarrizketaren imitazioa.

·Deskribapena : aurkeztu pertsonaiak asmakizunen bidez.

·Planifikazioa:

Lanen eta erantzukizunen banaketa

Lanaren balorazioa.

Ekintza hauek konpetentzia linguistikoa garatzeko tailerrean erabiltzekoak dira.

Koherentzia: Irakasleak testuaren honako zati hau arbelean idatzi eta irakurri ondoren, galdetu:

1.- "Batak" eta "besteak" hitzak zeren ordeztu daude? Eman aukera batzuk, ea konturatzen diren anaforaren funtzioaz. Komentatu anaforaren funtzioa.

"Danbolindari batek" Lainoa zuen izena, "beste danbolindariak" Hartza.

Testu -zatia:

Antzinako Tabirako hirian, gaur Durango izenekoan, bi danbo lindari bizi ziren, eta biak konkordunak.

"Batak" Lainoa zuen izena, "besteak" Hartza.

Idatz edo esan ezazu zein den hitz bakoitzaren esanahia:

Batak esan nahi du.....

Besteak esan nahi du .....

Narrazioaren hari kronologikoa

#### BI DANBOLINDARIAK IPUINAREN HARI KRONOLOGIKOA.

A) Bideoan agertzen diren sekuentzia-zatien artetik, esan zein den gaizki ordenatua dagoena.

B) Aurkitu sekuentziari ez dagokiona.

C) Identifikatu ekintzarekin bat ez datorren testua.

D) IRAKASLEAK, HAURREN AHALMENAREN ARABERA, SEKUENTZIAREN UNE BATZUK AUKERATUKO DITU, HAURREK ORDENA DITZATEN.

1. Egun batean, Lainoa neska batekin maitemindu zen: Intza.

2. Intza ere Lainoarekin maitemindu zen.

3. Biek elkarrekin ezkondu nahi zuten, eta beren gurasoei esatea erabaki zuten.

4. Lainoari kezka handi bat sortu zitzaion, Intzaren aitak baimena emango ote zion.

5. Intzaren aitari ezkontzeko asmoa zutela esan ziotenean, haserretu zen.

6. Lainoak, lotsaturik, alde egin zuen.
7. Anboto mendira heldu zen. Gaua egin zen.
8. Anbotoko kobazuloaren aurrean eseri zen.
9. Lamia batek deitu zion.
10. Lamiak danborra jotzeko eskatu zion.
11. Lamiak dantzan aritu ziren denbora luzez.
12. Lamiak konfiantza eman zion.
13. Gero, urrezko giltza eskaini zion, eta kutxa egunsentia baino lehen ez zabaltzeko eskatu zion.
14. Harlauza topatu zuen, eta egunsentia izan arte itxaron zuen.
15. Goizeko lehen argi-izpiekin, harlauza jaso, eta urrezko kutxa bat aurkitu zuen.
16. Gero, herrira abiatu zen. Herrian sartu eta berehala, denak ohartu ziren Lainoari gertatutako aldaketarekin.
17. Gero, Intzaren etxera abiatu zen, eta berarekin bizi nahi zuela esan zion.
18. Ezkondu zirenean, jai handi bat ospatu zen herrian. Herritar guztiak joan ziren, eta denek zoriona opatu zieten Lainoari eta Intzari.
19. Hartzak Anbotoko Mari topatu nahi zuen, eta berari ere altxorra eman ziezaion eskatu nahi zion.
20. Leize-zulora arratsaldeko seietarako heldu zen, eta hamaikak izan arte itxaron zuen.
21. Hartzak norbaitek berarengana joko zuela espero zuen, baina alferrik. Orduan, oso haserre, leizean sartu zen, baina lamiek ez ikusiarena egin zuten.
22. Hartza lamiekin haserretu egin zen, eta altxorra emateko eskatu zien.
23. Hartzak ez zuen itxaron egunsentia izan arte.
24. Hartzak ez zuen altxorra lortu, sugeak baizik.
25. Hartza negar batean geratu zen, eta ez zen etxetik atera denbora luzez.
26. Egun batean, Lainoa bere etxera joan zen, eta, Hartzaren tristura ikustean, Marirengana jotzea erabaki zuen.
27. Lainoak Mariri Hartza bere onera itzul zezan eskatu zion.
28. Hartzak kanpoan egin zuen lo. Mari joan zitzaion, eta bere onera itzuli zuen.

Narrazioaren hari logikoa: kausa / efektua erlazioak.

Eman desordenaturik honako gertakariak eta kausak, eta haurrek aukeratu behar dute zein den ondorio bakoitzaren kausa.

·Intzak Lainoa maite zuen	oso ona zelako
·Lainoak alde egin zuen	triste eta lotsaturik zegoelako
·Lamiek Lainoari konfiantza	
·eta altxorra oparitu zioten	ona zelako
·Lamiek Hartzari sugeak eta	
·Konkor gehiago eman zizkieten	gauzak gaizki eskatu zituelako
·Lainoak laguntza eskatu zion Mariri	Hartzaren laguna zelako
·Marik Hartzari barkatu zion	Lainoak eskatu ziolako

## TESTUAK

1.- Testu-sekuentziak:

Narrazioa: (Igorlea GU eta aditz-formak)

Taldeko haur bik ipuina kontatuko dute, bien artean, Hartza eta Lainoa izango balira bezala. Elkarrizketa (kontuan hartu hartzailea).

Hartzak egin duena ez dago ondo, gauzak ezin dira horrela eskatu; eta, gainera, gauza batzuk ezin dira eskatu.

Elkarriketa hau gogoratu ondoren, batzuek lamiarena egingo dute eta beste haur batzuek Hartzarena. Zer eskatu eta nola eskatu pentsatu ondoren, antzeztu.

(Irakasleak gogoraraziko die zein formula erabili ahal diren agurtzeko / mesedez eskatzeko / eskertzeko)

Hartza.- Aizue, bost ordu baino gehiago eman ditut zuen zain eta, ez didazue bada jaramonik egiten?

Lamia.- Eta jakin daiteke zertara etorri zaren?

Hartza.- Ni Lainoaren laguna naiz, eta, berari bezala, niri ere altxorra eman diezadazuen nahi dut. A, eta konkorra desagerraraz diezadazuen nahi dut.

## Azalpena

### Jolasteko hizkuntza

· Kutxan aurki daitekeen mezua, ona edo txarra izateaz gain, txantxetakoia izan zitekeen. Zure aukera da mezu atseginak eta dibertigarriak idaztea. Ondoren, kutxa batean sartu, eta baten batek hartuko du. Ez ahaztu noiz zabal dezakeen idaztea. (Ohartarazi iraintzeak ez duela balio).

· Ea badakizun zer jartzen duen mezu hauetan: (Jakiteko, ALDERANTZIZ IRAKURRI BEHAR DIRA).

1.- utrupal arradni ate aztnaifnok uzid ognazi nize kroni.

2.- utakse arradni ate aztnaifnok uzoid ognazi nize ironi.

3.- ad aotnot aned ira neztrukari.

Orain, idatzi zeuk eta eman lagunei.

Deskripzioa: Irakasleak, kartulina batzuetan, kalitate onak idatziko ditu: kemena, sormena, indarra, esker ona, adimena, ...

Kalitateak deskribatu ondoren, mahaian utziko ditu, eta ikasleei bana hartzeko esango die. Ondoren, kartazal bana emango die, eta kartulina bat aukeratzeko esango die. Aukeratuko duten kartulina gelako kide bati oparitzeko da, eta zertarako edo zergatik oparitzen dioten bertan idatziz azalduko dute.

Ondoren, nor bere aurkezpena egingo du, nolakoa zen eta oparia jaso ondoren nolakoa den esanez (ohartarazi -tsu atzizkiaren erabileraz eta eskatu erabiltzeko).

Egin honako izenlagunei dagozkien marrazkiak: Kementsua. Adoretsua. Indartsua. Iletsua.

4.- Lainoa lagunari barkatzeko eskatzera joan zaie lamiei, eta zer esan behar dien pentsatu du.

5.- Bete ditzatela honako testu honen hutsuneak:

Hartza Arangoeneko haitzetara abiatu zen; ez zen konturatu ..... bilakatu zela.

Etixerako bidean, Anbotoko Marik esan bezala, Arangoeneko haitzetatik igaro zen. Harlauza topatu zuen, jaso, eta kutxa bat aurkitu zuen. Kutxako estalkian hauxe zegoen idatzia: "Inori ezingo diozu konfiantza eta indarra eskatu".

Hartzak, oso urduri, kutxa zabaldu zuen, eta, barrutik, suge gorri pila bat sortu zen. Hartza ..... korrika herrira abiatu zen. Herrian sartu eta ..... denak beldurtu ziren Hartzari gertatutako aldaketarekin. Jendea berarengandik ..... egiten zen. Hartzak ez zuen ezer ulertzen. Etxean

..... bere burua ispiluaren aurrean ikusi zuen, eta ..... konturatu zen.

Negar batean geratu zen .... ez zen etxetik atera denbora luzez.

Hemen duzu hutsuneetan sartu behar duzuna, baina kontuz! Bikote bakoitzetik bat aukeratu behar duzu.

Munstro / printzesa - beldurtuta / lasai - berehala / beranduago - urrundu / hurbildu - sartu / irten zenean - orduan / lehenago - baina / eta.

5.- Sartu honako helbidean, eta aurkitu ipuinaren gaineko informazioa:

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

Ipuina: "Lamia zuzena"

Bila ezazu galdera honen erantzuna:

Zergatik oparitu zizkion etxea eta animaliak?

Esan egia ala gezurra diren:

Eskaleak orratz-ontzia lapurtu zuen.

Orratz-ontzia magikoa zen.

Eskaleak bizitzeko adina diru eskatu zuen.

Lamia eskale aitarekin haserretu zen.

Ipin iezaiozu izenburua ipuin labur honi.

## 2.4 GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, denen artean abentura bat osatzen dutelako.

Kapitulu baten egitura:

§	Karatula (minutu bat)
§	Narratzailea (2/4 minutu)
§	Kondaira (12/16 minutu)
§	Kredituak (minutu bat)

## Gidoi literarioa:

### BI DANBOLINDARIAK

HONTZA: Antzinako Tabirako hirian,... gaur Durango izenekoan,... bi danbolindari bizi ziren. Eta biak konkordunak.

LAINOA: (BARRE) Aupa, lagun. Jo berriro.

HONTZA: (OFF) Batak Lainoa zuen izena, beteak Hartza. Biek ederki asko jotzen zuten.

Baina Lainoak, Hartzak baino askoz hobeto jotzeaz gain, jendearen atsegina pizten zuen.

HONTZA: Horregatik, Lainoari inork ez zion iseka egiten.

LAINOA\HARTZA: (AD LIB) ...

HARTZA: Horixe erantzun nion.

LAINOA: (BARRE)

HONTZA: Hartzak, ordea, txantxa eta trufa ugari pairatzen zituen. / Egun batean, Lainoa neska batekin maitemindu zen,... Intzarekin. ... (OFF) Intza ere Lainoarekin maitemindu ere. ...

(ON) Neska lagunak Lainoaren musika ikaragarri gogoko zuen.

INTZA\LAINOA: (BARRE) ...

LAINOA: Ibai aldera joango al gara?

INTZA: Bai, goazen.

INTZA\LAINOA: (BARRE)

HONTZA: Biek elkarrekin ezkondu nahi zuten. Beraz, kemena bildu eta beren gurasoei esatea erabaki zuten maiteminduek. ... Lainoari kezka handi bat sortu zitzaion: Intzaren aitak berarekin ezkontzeko baimena emango ote zion.

INTZA: Zergatik uste duzu ez didala zurekin ezkotzen uzten.

LAINOA: Zera ba... konkorduna naizelako-edo.

INTZA: Baina, tira, horrek ez du axolarik. Zu pertsona bat zara. ... Oso ona, oso azkarra, eta gainera, musikari benetan trebea.

LAINOA: Ai, ez dakit ba... Ez dakit.

HONTZA: (OFF) Baina Lainoak konfiantza galdu zuen. ... Eta begiradan nabaritzen zitzaion. / (ON) Intzaren aitari ezkontzeko asmoa zutela esan ziotenean,... asko haserretu zen,... eta Lainoak, lotsaturik, alde egin zuen. / Herritik ihes egin zuen gizagaixoak, nora zihoan ez zekiela. Ibilian-ibilian, Anboto mendira heldu zen. ... Gaua egin zen.

HONTZA: Une hartan,... Mañariko eta Tabirako ezkilek... hamaikak jo zituzten. ... Lainoak ez zuen ezer entzun,... bere tristuran murgilduta baitzegoen gaztea. ... Eta etengabe ziharduen bere buruari galderak egiten.

LAINOA: (OFF) Ai ene, zer egin ote diot nik ba?! (ON) Zein da nire errua? Non egin dut huts? (AD LIB) Zergatik ez nau onartu? Zergatik ez nau maite?

HONTZA: (OFF) Horrela ari zela, Anbotoko leize-zuloari argi berezi bat zerion,... barrualdean emakume batzuk dantzan ari zirelarik. Argia gero eta distiratsuagoa zen. Hari jarraituz, mutiko harritua leize-zulora hurbildu eta bertan sartu zen.

MARI\LAMIA A\LAMIA B: (AD LIB/BARRE) ...

MARI: Lainoa, ez zaitez ikaratu. Zatoz gurekin. Bai, zatoz, mutiko. ... Lainoa, zatoz gurekin eta jo ezazu guretzat. Guk badakigu-eta danbolindari bikaina zarena. Jo ezazu guretzat. Eta horrela bihotzeko korapiloa askatuko zaizu.

LAMIA A\LAMIA B: (AD LIB/BARRE)

Aupa, mutiko!

Jo guretzat, gazte!

HONTZA: (OFF) Hori esan eta urrezko txistua eta danbolina eman zizkion, jo zitzan.

LAINOA: (AD LIB/BARRE)

HONTZA: (OFF) Lasaiturik, Lainoa jotzen hasi zen. Hasieran, leuna eta ahula zen haren doinua, baina gero eta alaiago eta sendoago bilakatu zen. Emakumeak dantzan aritu ziren denbora luzez. Orduan, ezkilek hamabiak jo zituzten. Argia ahitzen ari zen, txinparta txiki batzuk besterik ez geratu arte. Eta lamiak desagertu egin ziren, bat izan ezik, eta honela esan zion.

MARI: Entzun, Lainoa: orain arte oso ona izan bazara ere,...

LAINOA: Bai ba. ...

MARI: ... zoritxarrak kalte handia egin dizu. ...

LAINOA: ... Egia da hori. Errukarria ni.

MARI: ... Baina, hemendik aurrera, dena erabat bestelakoa izango da. ...

LAINOA: A, bai?

MARI: ... Belaunika zaitez nire aurrean.

LAINOA: (AD LIB) Zer egin behar didazu ba?

MARI: Hemendik aurrera, jendearen aurrean beldurrik azalduko zara. ... Begietatik konfiantza jarioko zaizu,... eta ikusten zaituenak mutil adoretzu eta kementsua ikusi zaitu.

HONTZA: (OFF) Gero urrezko giltza eskaini zion.

LAINOA: Bai polita.

MARI: Etxerako bidean,... Arangoeneko haitzetatik igaro beharko duzu.

LAINOA: Arangoeneko haitzetatik, bai.

MARI: Han, harlauza zuri bat topatu behar duzu.

LAINOA: Harlauza zuria.

MARI: Hura jaso, eta kutxa bat ikusiko duzu.

LAINOA: Kutxa bat harlauza azpian.

MARI: Giltza honek kutxa irekitzen du. ...

LAINOA: Aa...

MARI: ... Baina, arren, ez ireki egunsentia izan arte. Zoaz, mutiko.

LAINOA: Agur, andrea, eta eskerrik asko.

MARI: Bai, agur, agur. Eta ez ahaztu Anbotoko Marik zoriona eman dizula!

HONTZA: Lainoa harri eta zur geratu zen, entzuna baitzuen Anbotoko Mari oso gaiztoa zela. ... (OFF) Eta hara non berarekin oso atsegina izan zen! ... Etxerako bidean, Anbotoko Marik esan bezala, Arangoeneko haitzetatik igaro zen. Harlauza topatu, eta egunsentira arte itxaron zuen.

HONTZA: (OFF) Goizeko lehen argi-izpiekin, harlauza jaso eta urrezko kutxa bat aurkitu zuen.

Kutxan honakoa aurkitu zuen idatzia: "Inork ezingo dizu konfiantza eta indarra lapurtu".

LAINOA: "Inork ezingo dizu konfiantza eta indarra (OFF) lapurtu". Hara!

HONTZA: Lainoa liluratuta geratu zen. Oso urduri. Kutxa zabaldu egin zen, eta altxor bat zegoen barruan.

LAINOA: (OFF) Hara! Hau bai altxor ederra!

HONTZA: Gero, herrira abiatu zen. Herrian sartu eta berehala ohartu ziren denak Lainoari gertatutako aldaketarekin.

LAINOA: Kaixo, lagunok.

EMAKUMEA A: Kaixo, mutiko.

GIZONA A: Hori planta ederra! Zer gertatu zaio ba?

GIZONA B: Zu ere konturatu zara? Bitxia benetan.

GIZONA A: Lainoa aldatu egin da gero.

EMAKUMEA A: Bai, beste bat ematen du.

GIZONA B: Beti ona izan da. Baina, orain, adoretsuagoa dirudi.

EMAKUMEA A\GIZONA A: (OFF) Ondo esan duzu.

Bai horixe. Ez dago dudarik.

HONTZA: Lainoa beste danbolindariarekin elkartu zen, eta Anbotoko leizean gertatu zitzaiona kontatu zion. / Gero, Intzaren etxera abiatu zen, eta berarekin bizi nahi zuela esan zion bihotzeko neska-lagunari. / Intzaren aita ere, aldaketarekin ondo oharturik, honela esan zion gazteari.

AITA: Zera, e- entzun, gazte,... Oraingoan bai. Ados nago,... sendo, adoretsu eta kementsu ikusten zaitut eta.

LAINOA: Benetan diozu? (BARRE) Hau poza!

AITA: (BARRE) Jakina, mutiko.

HONTZA: Ezkondu zirenean, sekulako jai handia ospatu zuten herrian. / Herritar guztiak joan ziren, eta denek zoriona opa izan zieten Lainoa eta Intza ezkonberri zorionsuei. // Tira, denek, beste danbolindariak izan ezik. ... Hartzak Anbotoko Mari topatu nahi zuen,... berari ere altxorra eman ziezaion. ... Horixe eskatzeko asmoz, arratsaldeko seietan heldu zen Anbotoko leize-zulora. ... Eta hamaikak arte itxaron behar izan zuen bertan.

HONTZA: Bost ordu eman zituen itxaroten. Eta ezkilek hamaikak jo zituztenean, Lainoak esan bezala, leizetik argia jariatzen hasi zen. // (OFF) Hartzak espero zuen inork berarengana joko zuela. Baina alferrik. Orduan, oso haserre, leizean sartu zen, baina lamiek ez ikusiarena egin zuten. // Hartza sutan jarri zen.

HARTZA: (AD LIB) Non ote daude hauek baina? (AD LIB) Aizue! Bost ordu baino gehiago eman ditut zuen zain hemen kanpoan, eta ez didazue ba jaramonik egiten? Ze lamia arraio zarete?

HONTZA: (OFF) Lamiak begira geratu zitzaizkion. Batek honela ihardetsi zion.

MARI: Eta jakin ote daiteke zertara etorri zaren? Guk ez zaitugu gero ezagutzen. Nondik zatoz? Nor zara?

HARTZA: Zera ba, ni Lainoaren laguna naiz, eta berari bezala, niri ere altxorra eman diezadazuen nahi dut.

MARI: Altxorra nahi duzula.

HARTZA: Horixe! A, eta konkorra desagerraraz diezadazuen nahi dut.

MARI\LAMIAA: (AD LIB) Zaindu konkorra, zure danborra, horra altxorra.

HONTZA: (OFF) Lamiek elkarri begiratu eta belaunikatzeko eskatu zioten. Esku bana haren gainean jarrita, sorginkeria egin eta beste konkor bat sorrarazi zioten. Hartza ez zen konturatu, eta lasai asko geratu zen.

MARI: Hauxe da nahi zenuena?

HARTZA: Bai, baina beste gauza bat nahi dut. Esan dizuet ba!

MARI: Zer?

HARTZA: Altxorra! Lainoari eman diozuen altxorra bezalakoa.

HONTZA: (OFF) Lamiak giltza bat atera zuen, eta eman egin zion.

MARI: Etxerako bidean, Arangoeneko haitzetatik igaro beharko duzu.

HARTZA: (OFF) Arangoeneko haitzetatik diozu?

MARI: Han, harlauza zuri bat topatu behar duzu.

HARTZA: (OFF) Harlauza zuria.

MARI: Hura jaso, eta kutxa bat (OFF) ikusiko duzu.

HARTZA: Kutxa bat harlauza azpian? Ederki.

MARI: (OFF) Giltza honek kutxa irekitzen du.

HARTZA: Agur, andrea, eta eskerrik asko.

MARI: (OFF) Bai, agur, agur. Eta ez ahaztu Anbotoko Marik egin dizuna!

HONTZA: Hartza leizea utzi eta etxerantz abiatu zen. Baina ez zen konturatu munstro bilakaturik zegoela. (OFF) Aitzitik, oso pozik zihoan Marik, Lainoari bezala, itxura eder eta kementsua eman ziolakoan. ... Etxerako bidean, Anbotoko Marik esan bezala, Arangoeneko haitzetatik igaro zen. Harlauza topatu zuen. Jaso eta kutxa bat aurkitu zuen.

HONTZA: (OFF) Kutxan hauxe zegoen idatzia: "Inori ezin diozu konfiantza eta indarra eskatu".

HARTZA: Hara, begira. Zer da hau? "Inori ezin diozu konfiantza eta indarra eskatu". (AD LIB)

HONTZA: (OFF) Hartzak, oso urduri, kutxa zabaldu zuen, eta barrutik sugegorri pila bat sortu zen.

HARTZA: (AD LIB) Ai! Ai, ama! Zer da hau? Ene, ni banoa hemendik!

HONTZA: (OFF) Hartza, beldurtuta, korrika abiatu zen herrira. Herrian sartu eta berehala denak beldurtu ziren Hartzari gertatutako aldaketarekin. Jendea berarengandik urrunduko egiten zen. Hartzak ez zuen ezer ulertzen. ... Etxean sartu zenean, bere burua ikusi zuen ispiluaren aurrean, eta orduan konturatu zen. / Negar batean geratu zen, eta ez zen etxetik atera denbora luzez.

GIZONA A\GIZONA B\EMAKUMEA A: (AD LIB)

Ene! Baina zer gertatu zaio Hartzari?

Ikaragarria da! Hau beldurra!

Are konkortuago dator!

Goazen! Goazen hemendik!

Ene! Sorginkeria kontua da hau!

(AD LIB)

HARTZA: (AD LIB) Ene, baina ze arraio...? Zer egin didate?! ... (AD LIB) Ai, ai, ene, ze egingo ote dut orain? Ezin naiteke kalera atera ere egin. Errukarria ni!

HONTZA: Egun batean, Lainoa etxera joan zitzaion eta, Hartzaren tristura ikustean,...

Anbotoko Marirengana jotzea erabaki zuen. /// (OFF) Leizearen aurrean zegoen hamaikak jo zituztenean. Argia jariatzen hasi zenean Mari agertu zen.

MARI: Zer duzu, Lainoa? Zertara zatoz?

LAINOA: Nire laguna, Hartza, izugarri goibel dago. Ez zinen gero oso ona izan harekin.

MARI: Merezi zuena egin nion.

LAINOA: Agian bai, baina... ez dakit... dagoeneko gizagaixoa damututa dago. Ezin diozu barkatu?

MARI: Eta zer egin behar dut?

LAINOA: Konkor guztiak eraitsi, nahikoa sufritu du eta.

MARI: Ondo da. Esaiozu bihar gauean bere etxeko larrean egin behar duela lo. Entzun duzu?

LAINOA: Eskerrik asko, Mari. Ez naiz zurekin inoiz ahaztuko. Eskerrik asko bihotzez!

(BARRE)

MARI: Et, et, et! ...

LAINOA: Ee?

MARI: ... Ez dizut musu truk eman. Nik ere zer edo zer nahi dut.

LAINOA: Esan bada. Zer nahi duzu?

MARI: Hemendik aurrera, gauero, guretzat joko duzu danbolina. Horixe izango da ordaina.

LAINOA: Baina, Mari, ezin dut egunero hona etorri.

MARI: Ez da beharrezkoa. Zuk zeure etxean jo, eta nik hemendik entzungo dut.

LAINOA: Bai! (BARRE) Hori erraza dut! Horrela egingo dut! Mila esker, Mari!

MARI: Ez horregatik. Zoaz, mutiko.

LAINOA: (BARRE) Bai, agur. (BARRE)

HONTZA: Lainoa etxera abiatu zen. Eta Anbotoko Marik esan ziona kontatu zion Hartza lagun tristatuari. // Hartzak, Marik esan bezala, etxeko larrean egin zuen lo. Eta lotan zegoela, (OFF) laino zuri bat zabaldu zen herrian, harik eta Hartza estali arte.

HARTZA: (ZURRUNGAKA)

HONTZA: (OFF) Goizean, Hartza erabat aldatuta zegoen. Bere onera itzuli zen, eta bere buruarenganako konfiantza berreskuratu zuen.

HARTZA: (AD LIB) Primeran sentitzen naiz gaur.

HONTZA: (OFF) Herrira joan zenean, jendea aldaketarekin ohartu zen, eta Lainoa adina maitatu zuten.

MARI: Zorion entzun duenarentzat, zorion kontatu duenarentzat.

LAMIA B\LAMIA C: (AD LIB/BARRE)

GIZONA A\GIZONA B\EMAKUMEA A: (AD LIB/BARRE)

Eta halako batean... hara! Ikusi duzue?

Hartza da, ezta? Ez du bera ematen!

Guztiz aldatuta dago!

(AD LIB) ...

INTZA: Baina, tira, horrek ez du axolarik. Zu pertsona bat zara. ... Oso ona, oso azkarra, eta gainera, musikari benetan trebea.

HONTZA: (OFF) Batak Lainoa zuen izena, beteak Hartza. Biek ederki asko jotzen zuten.

INTZA: Zergatik uste duzu ez didala zurekin ezkotzen uzten.

LAINOA: Zera ba... konkorduna naizelako-edo.

HONTZA: Intzaren aitari ezkontzeko asmoa zutela esan ziotenean,... asko haserretu zen,... eta Lainoak, lotsaturik, alde egin zuen. // Egun batean, Lainoa neska batekin maitemindu zen,... Intzarekin. ... (OFF) Intza ere Lainoarekin maitemindu ere. // barrualdean emakume batzuk dantzan ari zirelarik.

MARI: Lainoa, ez zaitetz ikaratu. Zatoz gurekin. Bai, zatoz, mutiko. ... Lainoa, zatoz gurekin eta jo ezazu guretzat. Guk badakigu-eta danbolindari bikaina zarena. Jo ezazu guretzat. Eta horrela bihotzeko korapiloa askatuko zaizu.

HONTZA: (OFF) Hori esan eta urrezko txistua eta danbolina eman zizkion.

LAINOA: Zergatik ez nau onartu? Zergatik ez nau maite?

HONTZA: (OFF) Gero urrezko giltza eskaini zion.

LAINOA: Bai polita.

MARI: Etxerako bidean,... Arangoeneko haitzetatik igaro beharko duzu.

LAINOA: Arangoeneko haitzetatik, bai.

MARI: Han, harlauza zuri bat topatu behar duzu.

LAINOA: Harlauza zuria.

MARI: Hura jaso, eta kutxa bat ikusiko duzu.

LAINOA: Kutxa bat harlauza azpian.

MARI: Giltza honek kutxa irekitzen du. ...

LAINOA: Aa...

MARI: ... Baina, arren, ez ireki egunsentia izan arte.

HONTZA: (OFF) Horrela ari zela, Anbotoko leize-zuloari argi berezi bat zerion. // Gero, herrira abiatu zen. Herrian sartu eta berehala ohartu ziren denak Lainoari gertatutako aldaketarekin.

LAINOA: Kaixo, lagunok.

EMAKUMEA A: Kaixo, mutiko.

GIZONA A: Hori planta ederra! Zer gertatu zaio ba?

GIZONA B: Zu ere konturatu zara? Bitxia benetan.

GIZONA A: Lainoa aldatu egin da gero.

EMAKUMEA A: Bai, beste bat ematen du.

GIZONA B: Beti ona izan da. Baina, orain, adoretuagoa dirudi.

EMAKUMEA A\GIZONA A: (OFF) Ondo esan duzu.

Bai horixe. Ez dago dudarik.

HARTZA: Bai, baina beste gauza bat nahi dut. Esan dizuet ba!

MARI: Zer?

HARTZA: Altxorra! Lainoari eman diozuen altxorra bezalakoa.

HONTZA: (OFF) Lamiak giltza bat atera zuen, eta eman egin zion.

MARI: Eta jakin ote daiteke zertara etorri zaren? Guk ez zaitugu gero ezagutzen. Nondik zatoz? Nor zara?

HARTZA: Zera ba, ni Lainoaren laguna naiz, eta berari bezala, niri ere altxorra eman diezadazuen nahi dut.

MARI: Altxorra nahi duzula.

HARTZA: Horixe! A, eta konkorra desagerraraz diezadazuen nahi dut.

HONTZA: Hartza sutan jarri zen.

HARTZA: (AD LIB) Non ote daude hauek baina? (AD LIB) Aizue! Bost ordu baino gehiago eman ditut zuen zain hemen kanpoan, eta ez didazue ba jaramonik egiten?

HONTZA: (OFF) Negar batean geratu zen, eta ez zen etxetik atera denbora luzez.

HARTZA: [Ai, ai, ene, ze egingo ote dut orain? Ezin naiteke kalera atera ere egin. Errukarria ni!]

HONTZA: (OFF) Jaso eta kutxa bat aurkitu zuen. / Kutxan hauxe zegoen idatzia: "Inori ezin diozu konfiantza eta indarra eskatu".

HARTZA: Hara, begira. Zer da hau? "Inori ezin diozu konfiantza eta indarra eskatu". (AD LIB)

HONTZA: (OFF) Hartzak, oso urduri, kutxa zabaldu zuen, eta barrutik sugedorri pila bat sortu zen.

HARTZA: (AD LIB) Ai! Ai, ama! Zer da hau? Ene, ni banoa hemendik!

HONTZA: (OFF) Batak Lainoa zuen izena, beteak Hartza. Biek ederki asko jotzen zuten. (ON) Egun batean, Lainoa neska batekin maitemindu zen,... Intzarekin. ... (OFF) Intza ere Lainoarekin maitemindu ere. ...

INTZA: Zergatik uste duzu ez didala zurekin ezkotzen uzten.

LAINOA: Zera ba... konkorduna naizelako-edo.

INTZA: Baina, tira, horrek ez du axolarik. Zu pertsona bat zara. ... Oso ona, oso azkarra, eta gainera, musikari benetan trebea.

LAINOA: Ai, ez dakit ba.

HONTZA: Intzaren aitari ezkontzeko asmoa zutela esan ziotenean,... asko haserretu zen,... eta Lainoak, lotsaturik, alde egin zuen.

LAINOA: Zergatik ez nau maite?

HONTZA: (OFF) Horrela ari zela, Anbotoko leize-zuloari argi berezi bat zerion,... barrualdean emakume batzuk dantzan ari zirelarik. Argia gero eta distiratsuagoa zen. Hari jarraituz, mutiko harrtua leize-zulora hurbildu eta bertan sartu zen.

MARI: Lainoa, ez zaitetz ikaratu. Zatoz gurekin. Bai, zatoz, mutiko. ... Lainoa, zatoz gurekin eta jo ezazu guretzat. Guk badakigu-eta danbolindari bikaina zarena. Jo ezazu guretzat. Eta horrela bihotzeko korapiloa askatuko zaizu.

LAMIA A\LAMIA B: (AD LIB/BARRE)

Aupa, mutiko!

Jo guretzat, gazte!

HONTZA: (OFF) Hori esan eta urrezko txistua eta danbolina eman zizkion. Gero urrezko giltza eskaini zion.

MARI: Etxerako bidean,... Arangoeneko haitzetatik igaro beharko duzu.

LAINOA: Arangoeneko haitzetatik, bai.

MARI: Han, harlauza zuri bat topatu behar duzu.

LAINOA: Harlauza zuria.

MARI: Hura jaso, eta kutxa bat ikusiko duzu.

LAINOA: Kutxa bat harlauza azpian.

MARI: Giltza honek kutxa irekitzen du. ...

LAINOA: Aa...

MARI: ... Baina, arren, ez ireki egunsentia izan arte.

DEABRUA A: (OFF) Har ezak, Gilen! (?)

DEABRUA B: (OFF) To, Gilen.

DEABRUA A: (OFF) Ekar ezak, Gilen!

AITA: Nahi duen diru guztia emango nioke.

INTZA: Zoragarri, aita.

LAMIA A: Eta dirurik eskatuko ez balu?

AITA\INTZA: (BARRE)

HONTZA: (OFF) Gero, herrira abiatu zen. Herrian sartu eta berehala ohartu ziren denak Lainoari gertatutako aldaketarekin.

LAINOA: Kaixo, lagunok.

EMAKUMEA A: Kaixo, mutiko.

GIZONA A: Hori planta ederra! Zer gertatu zaio ba?

GIZONA B: Zu ere konturatu zara? Bitxia benetan.

GIZONA A: Lainoa aldatu egin da gero.

EMAKUMEA A: Bai, beste bat ematen du.

GIZONA B: Beti ona izan da. Baina, orain, adoretuagoa dirudi.

EMAKUMEA A\GIZONA A: (OFF) Ondo esan duzu.

Bai horixe. Ez dago dudarik.

DEABRUA A: (OFF) Har ezak, Gilen! (?)

DEABRUA B: (OFF) To, Gilen.

DEABRUA A: (OFF) Ekar ezak, Gilen!

DEABRUA B: To, Gilen.

HONTZA: (OFF) Hartza sutan jarri zen.

HARTZA: (AD LIB) Non ote daude hauek baina? (AD LIB) Aizue! Bost ordu baino gehiago eman ditut zuen zain hemen kanpoan, eta ez didazue ba jaramonik egiten?

MARI: Eta jakin ote daiteke zertara etorri zaren? Guk ez zaitugu gero ezagutzen. Nondik zatoz? Nor zara?

HARTZA: Zera ba, ni Lainoaren laguna naiz, eta berari bezala, niri ere altxorra eman diezadazuen nahi dut.

MARI: Altxorra nahi duzula.

HARTZA: Horixe! A, eta konkorra desagerraraz diezadazuen nahi dut.

MARI: Hauxe da nahi zenuena?

HARTZA: Bai, baina beste gauza bat nahi dut. Esan dizuet ba!

MARI: Zer?

HARTZA: Altxorra! Lainoari eman diozuen altxorra bezalakoa.

HONTZA: (OFF) Lamiak giltza bat atera zuen, eta eman egin zion. Jaso eta kutxa bat aurkitu zuen. / Kutxan hauxe zegoen idatzia: "Inori ezin diozu konfiantza eta indarra eskatu".

HARTZA: Hara, begira. Zer da hau? "Inori ezin diozu konfiantza eta indarra eskatu". (AD LIB)

HONTZA: (OFF) Hartzak, oso urduri, kutxa zabaldu zuen, eta barrutik sugedorri pila bat sortu zen.

HARTZA: (AD LIB) Ai! Ai, ama! Zer da hau? Ene, ni banoa hemendik!

HARTZA: Ai, ai, ene, ze egingo ote dut orain? Ezin naiteke kalera atera ere egin. Errukarria ni!

HONTZA: (OFF) Negar batean geratu zen, eta ez zen etxetik atera denbora luzez.

## BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUEL BENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

[www.Zernola.net](http://www.Zernola.net): Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

**EGILEAK**

**GOIATZ  
MULTIMEDIA, S.L.**

**PRODUKTOREA:**

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA  
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN  
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA  
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

**SOINU BANDA:**

Inhar Val

**EDIZIOA:**

Goiatz Multimedia, S.L.

**TXOTXONGILOAK:**

Goiatz Multimedia, S.L.

**DEKORATUAK:**

Sara García

**TXOTXONGIOLARIAK:**

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M<sup>a</sup> Rodríguez

**K 2 0 0 0 S . A .**

**Produktore exekutiboa:**

Tomas Ugalde

**Euskarako arduraduna:**

Josu Varela

**Bikoizketako zuzendaria:**

Alvaro Sánchez

**Sarrerako kanta:**

Ana Tere Bengoetxea

**Ahotsak:**

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

**Audioko teknikariak:**

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

**Nahasketak:**

Gorka Lara

Juan C. Cantera

**Produkzioko laguntzailea:**

Ana Urresti

**Koordinatzailea:**

Jon Arce

# **EIMA 2000**

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailaren egokitasun-aitormena du:  
2004-02-19**

**LEGE GORDAILUA: : SS-174/03**

**L.C. PRODUKTOREA  
tel.: 945-230715**